

2026/2027 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 2tik 13ra** (biak barne) izango dela 2026-2027 ikasturterako **2 eta 16 urte bitarteko** ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da [galdetegi hau](#) betez.

Ekarri beharreko dokumentazioa [hemen](#) irakur dezakezu.

[Zer da ikastola?](#)

Zergatik Udarregi Ikastola aukeratu? [Ikus hemen hainbat](#)

[arrazoi.](#) **BAZATOZ?**




Tanta txartela

Aurtengo Kilometroak jaia Lazkaoko ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)

Bestalde, jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari otsailaren 20an banatuko diogula **Tanta** txartel bat. Boleto gehiago eskatu nahi izan ezker, mesedez, usurbil@ikastola.eus helbidera idatzi

otsailaren 13a baino lehen. Kobrantza errezibo bidez egingo da otsailaren 16an. Bakoitzaren salneurria **5 €**-koa da eta saria 60.000 € izango da.



Xake festa

Otsailaren 20an, ostiralarekin, **XAKE FESTA** Sutegi Udal Liburutegian, Breogan Estevezen eskutik. Erne, aurtengoan Xakean jokatzeko ezagutzaren arabera antolatu ditugu taldeak! **17:00etan**, **HASTAPENA** edo Xakean jokatzeko ikasteko zertzeladak, eta **19:00etan**, **XAKE JOKOA**, Xakean jokatzeko dakitenentzat. Info+ eta Izen ematea: Sutegi Liburutegian.



Otsailak 13, Inauteriak

10:40ean: **HHko dantza saioa** Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra egingo balu, ikastolako frontoian egingo genuke.

11:00etan: **DBHko eta LHko desfilea** kaleetan zehar

11:45ean: **DBHko dantza ikuskizuna** kiroldegian (11:30 ate irekiera).

15:30ean: **LHko dantza ikuskizuna** kiroldegian.



Ikusleentzako oharra:

Kiroldegiko zelaiaren kanpo aldetik sartuko dira ikusleak.

DBHko ikuskizunerako sarrera librea izango da, aforoa bete arte. Hala ere, familiek aurrez erreserba egiteko aukera izango dute (ikus DBHko atala).

LHko ikuskizunerako sarrera ez da librea, txartela aurkeztu beharko da (ikus LHko atala).

HAUR HEZKUNTZA

Baso eskolako saioak

Dakizuen bezala, hurrengo ospakizunetarako entseguekin hasiak gara. Horregatik basoeskolako zenbait saio ez ditugu burutuko. Honako hauek basoeskolarik izango **EZ diren egunak**:

HH4: gaur, otsailak 6, eta otsailak 13

HH5: otsailak 11



Inauteriak

Gogoratu hurrengo astean, Inauteriak ospatuko ditugula eta horretarako zakuak prestatu behar direla. Norbaitek zakua prestatu gabe baldin badauka eta laguntza beharko balu, tutoreari jakinarazi mesedez.

Datorren ostiralean, otsailak 13, goizeko 10:40 etan Inauteri-festa egingo dugu Mikel Laboa plazan, eguraldi txarra egingo balu ikastolako frontoian egingo genuke.



Goizean haurrak zakuarekin jantzita etorriko dira gelara eta, nahi duena, galtzerdi-abarkak oinetan jantzita. Aurten, iaz bezala, gela bakoitzean AURPEGIAK MARGOTZEKO TXOKO bat jarriko dugu 9:00etatik 9:45era. Beraz, gurasoek aukera izango duzue norbere haurrari eta gainontzekoei aurpegia margotzeko. Nahi duenak etxetik margotuta etortzeko aukera ere izango du. Eguerdian haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue, beti bezala.

OHARRAK:

*Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.

*Aurten LHko arratsaldeko ikuskizunera HH5eko ikasleak joango dira.

Agerialde eraikina 16:30tatik aurrera

Dakizuen bezala, arratsaldeetan, Agerialdeko atea zabalik egoten da 16:30etatik 17:30ak bitarte, komuna erabili behar duenak sarbidea izan dezan. Baina ez da ikastolako gainerako espazioak erabiltzeko, alegia, ikasleek ezin dute ikastola

barruko espazioetan jolasean ibili, bertako materiala erabili edo bertan meriendatu. Hori ulertuko duzelakoan, gurasoei dagozkizuen ardurak hartzea eskatzen dizuegu. Milesker!



LEHEN HEZKUNTZA

Material-kobrantza

Otsailaren 16an, hileko erreziboarekin batera, LHko ikasleei 2025/26 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **40 €** izango da.



LH Inauteriak

Datorren astelehenean, hilak 9, LHko ikasle bakoitzari inauterietako ikuskizunera sartzeko **txartel bana** emango zaio.

Txartela ez baduzue erabiliko, ikasleak txartela tutoreari bueltatzea eskertuko dizuegu, beste pertsona batzuei emateko.



Soberan geratu diren txartelak hemen [klikatuz](#) eskatu ahal izango dituzue **astelehenean arratsaldeko 16:00etatik aurrera**. Hauek bukatzean galdetegia itxiko da. Txartelak ikasleei emango zaizkie ostirala baino lehen. Familia bakoitzak gehienez **sarrera bat** hartzea eskatzen dizuegu, familia denak aukera berdina izan dezazuen.

BIGARREN HEZKUNTZA

Inauterietako DBH-ko ikuskizunerako aforoa

Aurreko urtean DBHko ikasleen inauterietako dantza ikuskizunera familia batzuk sartu ezinik geratu zirenez, aurten **sarrerren erreserba sistema** jarriko da martxan.

Familia bakoitzak **sarrera bat** erreserbatzeko aukera izango du.

Erreserbatu gabeko sarrerarik geratzen bada, **erreserbarik egin ez dutenek** ilaran dauden **ordenaren arabera** eskuratu ahal izango dituzte. Ateak 11:30etan irekiko dira eta 11:45ean hasiko da ikuskizuna.

Guztira **200 sarrera** banatuko dira.



Erreserba egiteko, [esteka honetan](#) **seme-alabaren izen-abizena bakarrik** adierazi behar duzue. Eskaera egiteko azken eguna, otsailak 12, osteguna, itxiko da.

Familia bakoitzeko eskaera bakarra onartuko da, eta **DBHn ikasleak dituzten familiek bakarrik** egin ahal izango dute erreserba.

Irudiak eta stickerrak ezabatu

Azkenaldian dugun kezka baten berri eman nahi dizuegu DBHko irakasleok:

Jakin dugu zenbait ikaslek irakasleen irudiak eta stickerrak WhatsApp edo bestelako aplikazioetatik zabaltzen dabiltzala.

Batzuetan, irudi hauek desagokiak, iraingarriak edo beste pertsona batzuen pribatutasuna urratzen dutenak izan daitezke.

Mugikorraren erabilera egokia bermatzeko, zuen laguntza ezinbestekoa da, gurasook zarete eta mugikorren jabe eta azken erantzule.

Eskaera honakoa da:

1. Stickerrak edo irudi desagokiak (bereziki irakasleenak) beraiekin batera ikusi eta ezabatzen dituztela ziurtatzea.
2. Haiekin hitz egitea, irudi edo stickerrak zabaltzeak duen larritasunaz eta besteen pribatutasuna errespetatzearen garrantziaz.

Mila esker zuen lankidetzagatik eta guztion segurtasuna eta ongizatea bermatzen laguntzeagatik.

